

ataria

2022-05-06 • 1.596. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus

Alatzne Etxaburua, izan denaz eta badenaz





AURKIBIDEA

Iritzia Nekane Artolazabal **3**

Erreportajea

Etixerako bidea gertu **4-7**

Arima Elikatuz

Maddi Etxeberria **8-9**

Elkarrizketa Alatzne Etxaburua,

kirolaz zein bizitzaz **10-17**

KMK Josu Ozaita **18**

Iritzia Garbiñe Biurrun **20-21**

Iritzia Aritz Peñagarikano **22**

Agenda 'Irribarte', irribarreak

formatu txikian **26-29**



Azaleko irudia
Irati Saizar Artola

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana eskaratu

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Instagram eta auzoko begiluzea



**NEKANE
ARTOLAZABAL
ROYO
HERRITARRA**

Mende erdi pasatxo bete dudan honetan ireki dut kontua Instagramen, lagun batek bidaltzen zizkidan irudiek sortutako jakin-minak akuilatuta. Norbait zer den ez badaki, labur eta boteprontoan esanda, edonork argazki eta bideoak partekatzeko sare eta aplikazioa da. Nik bezala, beste 1.000 milioi erabiltzailek nabigatzen dute hilean itsaso infinitu horretan, emakumeak gehienak, eta ikaragarria da daukan eragina, batez ere gazteengan; izan ere, erabiltzaileen %71 gazteak dira, 35 urtez azpikoak.

Aitortu behar dut hasieran kuriositate handiarekin murgiltzen nintzela sarean. Zenbait pertsonari jarraitzen hasi nintzaie, eta post bat argitaratzen zuten aldiro jasotzen nituen jakinarazpenak telefonoan: bizimodu osasungarriagoa izateko aholkuak ematen zituen medikuarenak, errezeta erraz eta goxoak partekatzen zituen sukaldariarenak, bidaia interesgarriak antolatzen zituen agentziarenak... Denetarik, eta zein baino zein interesgarriago iruditzen zitzaidan.

Baina horien guztien artean, nire aisian sartzeko zirrikitua aurkitu zuten beste batzuek ere; milaka ezezagunen artean, Tamara Falcok eta David Beckhamek, esate baterako. Hala jakin nuen Falco andrea Filipinetan ibili zela senargaiari haren familiaren jatorria erakusten, eta Beckhamen semea ezkondu egin zela ez dakit ze neska dotore eta aberaskumearekin. Irudi guztiak zeuden zoriontasunaren filtrok pasata, noski.

Aitortu behar dut hasieran kuriositate handiarekin murgiltzen nintzela sarean. Zenbait pertsonari jarraitzen hasi nintzaie, eta post bat argitaratzen zuten aldiro jasotzen nituen jakinarazpenak telefonoan: bizimodu osasungarriagoa izateko aholkuak ematen zituen medikuarenak, errezeta erraz eta goxoak partekatzen zituen sukaldariarenak, bidaia interesgarriak antolatzen zituen agentziarenak... Denetarik, eta zein baino zein interesgarriago iruditzen zitzaidan.

Arratsalde batean, baina, konaturatu nintzenerako, ordubete pasa xahutua nuen pantailari begira, sofán eserita, ezer gehiago egin gabe, haien bizitza perfektuei jarraituz, nirea alferrik galduta, eta egonezin izugarria eragin zidan horrek. Horren hutsik al dago nire bizitza, besteen bizi-printza makillatuekin betebeharra badaukat? Horren aspergarria al da, besteen zoriontasun faltsuarekin entretenitu behar badut? Horren begiluzea al naiz, besteek zer egiten duten kuxkuxeatzen ibiltzen banaiz?

Instagram erraldoian egotea herri txiki-txiki batean bizitzea bezalakoa dela pentsatu nuen. Eskarmentua dudalako diot hori. Herrietan, auzokoak badu albokoaren lan eta ordutegien berri, badaki ondoko etxera nor

«Instagram erraldoian egotea herri txiki-txiki batean bizitzea bezalakoa dela pentsatu nuen [...]. Jasanezina egiten zitzaidan kontrol zorrotz hori. Eta orain ni neu naiz Instagrameko ‘auzoko begiluzea!’»

etortzen den bisitan eta zenbat denbora igaro duen bertan, badaki noiz eta nola etxeratu diren bizilagunaren seme-alabak parrandan ibili ondoren... Jasanezina egiten zitzaidan kontrol zorrotz hori. Eta orain ni neu naiz Instagrameko *auzoko begiluzea*!

Baina, herri txikietan ez bezala, boluntarioa da aplikazio horretan bizitza erakusgai jartzea. Eta gutxi batzuek dirutza irabazten dute hori eginda —Ronaldok, esaterako, 750.000 dolar kobratzen omen ditu post bakoitzeko—. Ulertezina egiten zait, ordea, sosik irabazi gabe, desio ezkutu batek bultzatuta, bizipenak guztion begi bistan jarri behar izate hori. Ez dut ulertzen, gure bizitzetan ditugun hutsuneetatik ez bada, besteen begietan izen eta izana eduki beharretik ez bada.

Tira, adin kontua izango da: akaso, zaharregia naiz halako modernotasunak ulertzeko.



HELMUGARA LEHENBAILEHEN IRISTEKO

‘Etxerako bidea gertu!’ lelopean mobilizazioa antolatu du biharko Sare Herritarrak, Izan Bidea dinamikaren barruan. Elkarguneetako bat Tolosa izango da, eta Aiztondotik Oriora abiatuko dira. Euskal presoek eskubideen alde kilometroak egitea da asmoa.

Imanol Garcia Landa

Bi urte pasatxo bete dira Sare Herritarrak Izan Bidea dinamika martxan jarri zuenetik, justu COVID-19a dela-eta ezarritako konfinamenduaren aurretik. Dinamika horren aterkian hainbat egitasmo antolatu dituzte *Etxerako bidea gertu!* lelopean. Zehazki, biharko, maiatzaren 7rako, bi mobilizazio egingo dira Tolosaldean. Horietako batek Tolosa izango du elkargunea, eta bestean Aiztondotik abiatu eta Oriora joango dira.

Izan Bidea dinamikaren bitartez ibiltarien sarea sortzen ari dira. Saretik azaldu dutenez, helburua da euskal presoek pairatzen duten «salbuespen legedia-ekin amaitu» eta Euskal Herrira ekartzeko «kontsent- sua aktibatzea». Egitasmoaren bidez ibiltari sareko

kideek kilometroak egitea nahi da, zehazki 3.127.326 kilometro egin arte, Euskal Herriak dituen biztanle kopurua bezainbeste. Kilometro horiek motorrik gabe egin behar dira: oinez, korrika, bizikletan, patinetean... Biharkoan ahal diren kilometro gehienak batu nahi dituzte antolatutako mobilizazioetan, eta horretarako ahal dituzten pertsona gehienak elkartu nahi dituzte, pertsona bakoitzak egiten dituen kilometroak zenbatzen baitira.

Tolosan elkartuko direnak, eskualdeko lau lekutik abiatuko diren zutabeetan parte hartuko dute. Alegiatik 10:30ean, Anoetatik 11:00etan, Lizartza eta Txarama aldetik 11:15ean eta Ibarratik 11:30ean jarriko dira martxan zutabeak. Berastegitik Ibarraraino joan-

go dira, gero han bat egiteko zutabearekin. 12:00etan bat egingo dute Tolosako Plaza Zaharrean, eta Alde Zaharretik kalejira egingo dute.

Aiztondo bailarako herritarrek Orion egingo den Saretze Egunean parte hartuko dute. Bertara joateko 08:30ean abiatuko dira zutabeak Amasa-Villabona-ko Berdura plazatik, Asteasuko plazatik eta Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik eta 08:45ean Adunako plazatik. Ondoren, 13:30ean Orioko plazan ekitaldia egingo dute eta 14:00etan bazkaria. Arratsaldean, 17:30ean, Distopia elektrotxarangaren emanaldia, jokoak eta haurrentzat txokoa izango dira. Behin ekitaldiak bukatuta, Aduna, Amasa-Villabona, Asteasu eta Zizurkilera buelta egiteko Oriotik autobusak abiatuko dira 20:00etan. Aiztondotik joango direnaz gain, Orion Burantzaldetik (Lasarte, Usurbil eta Andoain) eta Urola-Kostatik (Zarautz eta Orio bertakoak) joandakoak elkartuko dira.

Nahikari Iturbe Sareko kideak azaldu duenez, Orioko egitasmoa billabonatarren eta oriotarren arteko beste egitasmo batetik abiatu zen: «Villabonatik pentsatu zuten kilometroak egiteko Oriora joango zirela eta bertan hamaiketako egin. Gero Oriokoak joan ziren bueltan. Eta hor atera zen egun maiatzaren 7an zerbait batera egiteko ideia». Horrelako ekinbideekin «sarekideen arteko harremanak sendotzeko aukera» ematen duela gaineratu du Iturbek.

Etixerako bidea gertu! dinamikan kilometroak egitea da helburua, beraz, eta 3.127.326 kilometro horiek egiteko erronka betetzen ari dira. «Orain arte bi milioi kilometro inguru zenbatu dira, eta urria bitarte dago denbora falta direnak egiteko», esan du Karmele Elizaran Sareko kideak. «Aplikazio bat dago norbanako bakoitzak egiten dituen kilometro horiek zenbatzeko, eta zerrendara gehitzeko». Josune Agirrezabala Sareko kideak gaineratu duenez, «ziur gaude maiatzaren 7an jendea bilduko garela, eta horrela ahal di-

ETXERAKO BIDEA GERTU!

Tolosa

- **10:30.** Alegiatik zutabea.
- **11:00.** Anoetatik zutabea.
- **11:15.** Lizartza-Txaramatik zutabea.
- **11:30.** Ibarrik zutabea.
- **12:00.** Tolosako Plaza Zaharretik abiatuta kalejira.

Orio

- **08:30.** Amasa-Villabona, Asteasu eta Zizurkilgo plazetatik zutabeak.
- **08:45.** Adunatik zutabea.
- **13:30.** Ekitaldia Orioko plazan.
- **14:00.** Bazkaria.
- **17:30.** Distopia elektrotxaranga, jokoak eta haurrentzako txokoa.

tugun kilometro gehienak zenbatuko ditugula. Aurrrera atera behar dugu erronka denon artean».

Urriaren 8an izango da Izan Bidea erronkaren bukaera, Donostian. Azken kilometroak egiteko mobilizazio handi bat antolatu dute. «Urtero urrian egiten da Sarek deitutako mobilizazio nazionala, eta dinamika denok elkarrekin eman nahi diogu amaiera, egun horretan ere kilometroak eginez», esan du Iturbek. «Erronka beteko dugu, eta Donostian egingo den dinamika honen azken mobilizazio horretan erronka burutu dela ospatzeko aukera izango dugu».

Eskualdekoak, bederatzi preso

Guztira 189 euskal preso daude (maiatzaren 2ko datua), 26 emakumezko eta 163 gizonezko. Horietatik 104 Euskal Herriko espetxeetan daude, 65 Espainiako Estatuko espetxeetan eta 20 Frantziako Estatuan. Eskualdeko euskal presoak bederatzi dira, horietatik bi Euskal Herriko espetxeetan, sei Espainiako Estatu-ko kartzeletan eta bat Frantziako Estatu-koetan.

Eskualdeko azken Euskal Herriratzea aurreko aste-

IRAGARKI LABURRAK

SALGAI. Soinekoa eta gainea joka. Oso jantzia, 44 neurrikoa. Interesa duenak deitu: 647 973 225.

Zure iragarki laburra argitaratzeko: **943 65 56 95**, ataria@ataria.eus edo pasa ATARIA-ko bulegotik pasa.

«Aplikazio bat dago norbanako bakoitzak egiten dituen kilometroak zenbatzeko»

KARMELE ELIZARAN

an izan zen. Ana Belen Egues preso elduaindarra Madrilgo Alcala Meco espetxetik Arabako Zaballa espetxera eraman zuten. «Aurretik leku batetik bestera eraman dute», esan du Agirrezabalak. «Asturiastik Madrilgo Alcala Meco espetxera eraman zuten, eta azkenean Zaballara. Madrilen baldintza kaskarretan egon da, bigarren graduan, preso

gatazkatsuen moduluan. Astean behin bakarrik atera zitekeen liburutegira edo gimnasiora joateko; oso mugatuta zegoen modulu horretan zegoelako». Elizaranek gaineratu duenez, «emakume presoek zigor bikoitza izaten dute. Gutxiago direnez, ez dituzte berehala lekualdatzen eta zigorra areagotu egiten diete».

COVID-19a dela-eta hartu diren murrizketek kalean eragina izan dute, eta espetxeetan ere asko nabaritu dela diote Saretik. «Presoek dituzten bisean bisekotan eten asko izan dira», esan du Iturbek. «Bisean bisekorik gabe denbora asko egon dira, eta lekualdaketak dauden garaian ere berrogeialdian jartzen dituzte. Eta nahiz eta bigarren graduan izan, isolatuta egon behar izaten dute espetxe bakoitzak duen protokoloaren arabera. Espetxetik espetxera mugitzeak ere beraientzako zama gehigarri hori ere badu».

Preso bakoitzaren egoera aztertzerakoan, espetxeetan izaten diren graduen baldintzak kontuan hartzen dira. Zigorren laurdena bete duen presoak baimenak jasotzen hasteko aukera du, erdia beteta duenak hirugarren gradua izatekoa, eta hiru laurdenak bete dituenak baldintzapeko askatasuna. Egoera horretan gradu progresioaren gaia

ere kontuan hartzekoa dela azaldu dute Sare Herritarra mugimendutik. Izan ere, baldintzapeko askatasuna emateko, aurretik hirugarren gradua emanda izatea eskatzen da, eta horren aurretik bigarren gradua. «Hau da, onuretan progresio bat izan behar dela argudiatzen du Fiskaltzak, adibidez preso bati baldintzapeko askatasuna ez ematea eskatzeko», azaldu du Iturbek. «Aurretik euskal presoek orokorrean salbuespeneko egoera ezarri zaienez, eta beraz, baldintza hobeak ukatu zaizkienez, orain zigorrak jarraipena du legez izan beharko lituzketen eskubideak berriro ukatuz». Eskualdeko preso guztiek beraien kondenaren laurdena beteta dutela ekarri dute gogora Saretik, eta, beraz, baimenak jasotzeko eskubidea dutela. «Gradu progresioaren bide horretan sartzeko aukera lukete, baina salbuespeneko politika horrek mantsotzen du gradu progresio hori aplika-

ATARIAN jarrita Goierri eta Urola Kostako Hitz egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€


Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

tzea», esan du Iturbek. «Zer esanik ez, kontuan izanda oraindik eskualdeko zazpi preso daudela Euskal Herritik kanpoko espetxeetan».

Izan ere, euskal presoek salbuespeneko legedia aplikatzen zaiela salatu dute. «Larriki gaixo dauden presoek etxean egon beharko lukete, eta legeak bere horretan beteta, preso askok etxean egon beharko lukete. Eta ez da gertatzen», zehaztu du Iturbek. «Hori bakarrik aldatuko balitz asko aldatuko litzateke egoera, eta elkarbizitzaren, bakearen eta konponbidearen aldeko bidea asko zabalduko litzateke».

Horregatik oraindik mobilizatzea beharrezkoa dela

diote Sare Herritarratik. «Azken preso atera arte hor jarraituko dugu mobilizatzen», esan du Elizaranek. Agirrezabalak bere aldetik, biharko egitasmoa ekarri du gogora berriro: «Deialdia egina dago, ahal duen jende gehienak parte hartu ahal izateko. Presoak etxera ekartzea denon artean lortuko dugu, ez batzuen artean bakarrik».



Eskualdeko presoek egoera

(1) LUIS 'SUNI' IRURETAGOiena (Tolosa)

Lannemezango (Frantzia) espetxean,
330 kilometrora. 14 urte kartzelan.
Zigorra 2024an beteko du.

(2) JUAN KARLOS BESANCE (Villabona)

Dueñasko (Palentzia, Espainia) espetxean,
310 kilometrora. 11 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2033an beteko ditu.

(3) OSKAR ZELARAIN (Villabona)

Soriako (Espainia) espetxean,
260 kilometrora. 19 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2031n beteko ditu.

(4) IÑIGO GURIDI (Villabona)

Leongo (Espainia) espetxean,
370 kilometrora. 24 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2023an beteko ditu.

(5) MANEX CASTRO (Villabona)

El Duesoko (Kantabria, Espainia) espetxean,
170 kilometrora. 13 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2039an beteko ditu.

(6) ANA BELEN EGUES (Elduain)

Zaballako (Araba) espetxean.
20 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2024an beteko ditu.

(7) AITOR AGIRREBARRENA (Lizartza)

Villabonako (Asturias, Espainia) espetxean,
385 kilometrora. 19 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2028an beteko ditu.

(8) GARI ETXEBERRIA (Lizartza)

Dueñasko (Palentzia, Espainia) espetxean,
310 kilometrora. 15 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2022an beteko ditu.

(8) ANDONI GOIKOETXEA (Gaztelu)

Martuteneko (Gipuzkoa) espetxean.
3 urte kartzelan.
Zigorren 3/4 2024an beteko ditu.



**MADDI
ETXEBERRIA**
DIETISTA
NUTRIZIONISTA
@BEGAONEGIN

Lodifobia eta pisuaren estigma



rain dela pare bat aste, polemika handia egon zen sareetan ja-

rraitzaile asko dituen pertsona

batek esan duen zerbaiten harira. Baina beno, testuinguruan jarriko zaituztet, ziurrenik, zuetako askok ez duzelako jakingo zertaz ari naizen.

Roxy arropa markak, uda honetako bainujantzientzat egin duen kanpainan, forma eta tamaina ezberdineko gorpuzdun modeloak jarri ditu; argalagoak, gizenagoak, altuak, baxuak... Kontua da, sareetan jarraitzaile asko dituen emakume batek (dei diezaio-gun X emakumea), kritika bat egin diola iragarkiari. Esan du ondo dagoela gorputz guztientzako arropa egitea, baina iragarkietan gorputz lodiak jarritz gero, obesitatearen apologia egiten dela.

Sare sozialak erabat aztoratuta ibili dira hainbat egunez eta materiaz dakiten hainbat profesionalak (eta ez dakiten askok ere) euren iritzia eman dute. Beraz... zer du egiatik X emakumeak esandakoak eta zer gezurretik?

Hasteko, zer da obesitatea edo zeri deitzen diogu? Gehien topatuko duzuen definizioari dagokionez, giza gorputzean gantz gehiegi metatzearen gaixota-

suna dela topatuko duzue toki askotan. Gehiegi? Nola gehiegi? Gehiegi noren edo zeren arabera? Puntu hau oso polemikoa izan daitekeenaren kontziente naiz, baina uste dut, badugula garaia osasun ikuspegi paternalistatik ihes egin eta errealitate apur bat irensteko.

Obesitatea gaixotasun gisa definitzea (eta orain jendeak lepora salto egingo dit) oso erabaki txarra iruditzen zait. Zergatik? Pisuaren estigma areagotzeaz gain, grasa metaketa handia daukan jendeari onura baino kalte handiagoa egiten diolako. Eta ez naiz hemen gehiago sartuko, gauza gehiago kontatu nahi ditudalako, baina agian interesgarria litzateke honen inguruan luze eta zabal hitz egitea beste atal batean.

X emakumearekin jarraituz. Bere iritziz, pertsona gizenek modelo lana egiteak gainontzekoak gizen-tzera bideratzen gaitu. Eta sentitzen dut, baina ez. Gizarteak duen lodifobiarekin eta pisuaren estigma-rekin, denok gabiltza pisua irabaztea ekiditen. Beraz, okerra.

X emakumeari kontra egin dioten askok erabili duten argudioa da, emakume gizenetako bat (iragar-kiaren erdian agertzen dena), kirolari profesionala dela (surflaria, hain zuzen ere) eta pertsona aktibo bat izanik, osasuntsu dagoela. Baina hemen berriro



hasten gara pertsonak kategorizatzen, ohartzen zarete? Berriro hasten gara pertsonen gizenak egoten uzten, beti ere bizi-ohitura osasuntsuak (jendearen begietara) badituzte. Bai, izan zaitezke gizona, baina baldin eta kirolaria bazara, «ondo» jaten baduzu... eta hori guztia egin arren argaltzen ez baduzu. Baina al-diz gizona bazaude eta ez baduzu kirolik egiten edo «ez bazara zaintzen», badirudi jendearen errespetua galtzen duzula eta bigarren mailako herritarra bihurtzen zarela.

Besteen osasuna inportako balitzaigu bezala aritzen gara. Noiz ohartuko gara hori lodifobia dela? Gustatzen ez zaiguna pertsona lodiak ikustea dela, gizarteak erakutsi digulako ez direla ederrak/erakargarriak...? Izan ere, orain oso modan dagoen diskurtsoak zera dio: lodi egon zaitezke,

«Esan du ondo dagoela gorputz guztientzako arropa egitea, baina iragarkietan gorputz lodiak jarritz gero, obesitatearen apologia egiten dela»

baldin eta osasuntsu bazaude. Ez barkatu. Lodi dagoen pertsona horren osasuna bost axola zaizu, ez izan hipokrita!

Sentitzen dut gaurko testu aldrebes hau, baina horrelako kontuek odola irakinarazten didate! Baina ondorio on batekin amaitzea gustatuko litzaidake. Beraz... eta hasteko, utz ditzagun besteak bakean. Ar-

dura gaitezen geure buruaz, gure osasunaz (mentalaz ere bai, ezta?), gure elikaduraz, gure jendeaz... Eta bestetik, testu honetako zerbait arraroa egin bazaizu, atakatua sentitu bazara edo horrelako zerbait, agian hausnartu dezakezu honen inguruan. Denok baititugu sinesmen barneratuak eta denok dugu deseraikitze asko! Animo! Bidea elkarrekin eginda, eramangarriagoa izaten da askotan.

«ZIZURKILERA ETORRI IZAN EZ BANINTZ, SEGA BAT ZER ZEN EZ NUKE JAKINGO»



ALATZNE ETXABURUA HERRI KIROLARIA

Aurretik inoiz probatu gabe, Zizurkilgo jaietan herri kirol jaialdi bat egitera animatu zen beste hainbat lagunekin batera Etxaburua; pixka bat entrenatu eta segan aritu zen. Jai giroan hasitakoak onenen artean txapelketetan lehiatzeraino eraman zuen.



Irati Saizar Artola Zizurkil

Tolosan bizi zen kalekume bat izatetik Zizurkilera bizitzera joan eta herri kirol munduan murgildu zen Alatzne Etxaburua (Zizurkil, 1978). Segat bat zer zen ere ez zekien, eta Euskal Herriko txapelak izatera iritsi zen. Segaz gain, trontzan eta aizkoran ere aritu izan da. 2018an, kirol ibilbideari amaiera eman zion.

Kirolari hitzak badu zentzua zure ibilbidean.

Txiki-txikitatik egin izan dut kirola. Igeriketan hasi nintzen lehenik eta gero bizikletan aritu nintzen 14 urte ingururekin. Tolosan Zirauna izeneko talde bat zegoen, Oriako txirrindularitza eskolak zeukana, ia hamar neska izango ginen. Ondoren, tarte batean, ezer egin gabe egon nintzen, eta behin Zizurkilera bizitzera etorrita, sartu nintzen herri kirol munduan.

Nola egin zenuen topo herri kirolekin?

2008an etorri nintzen bizitzera Zizurkilera. Naroa Geresta herritarra segan aritzen zen, eta herriko festetan herri kirolak egiteko ideia atera zen. Lau bikote misto elkartu ginen eta segan aritu behar genuela erabaki zen. Jaialdi horretarako prestatzen hasi nintzen eta gustatu egin zitzaidan. Joxe Gabirondo gazteluarrak eman zidan lehen sega eskuetara.

Aurretik ezaguna zenuen sega?

Ez, ez. Nire aitona-amonak baserritik kalera jaitsi ziren bizitzera, eta ni kalekumea naiz, erabat. Familian ez dut inor izan baserria duenik.

Eta zer moduzko harremana izan zenuen segarekin?

Gogoratzen naiz Joxek sega eman zidanean, nondik heltzen zen galdetu niola. Behin ere ez nuen sega bat eskuetan hartu, niretzat baserri mundu hori eta herri kirola bera guztiz berria zen. Ikusi izango nituen harri jasotzaileak eta nonbait, baina ez nintzen sekula haiei begira jarri, atentzio berezirik ez zidaten deitu ordura arte. Erreminta eskuetan hartu arte ez nintzen jabetu hor zegoen munduaz.

Festetan egindako saioak jarraitzeko har hori sartu zizun?

Herriko festetan, abuztuaren 15ean egin genuen jaialdia, eta Gabirondok bere herriko festetara ere gonbidatu egin gintuen. Behin herrian egin, gero Gaztelun, eta bata bestea ekartzen duenez, Almitzako sega txapelketara joan nahi ote nuen galdetu zidan, eta behin hasita, baiezkoa eman nion.

Txapelketetan hasteak beste prestakuntza bat izatea eskatu zizun?

Lehen kezka sega hartzen eta segan egiten ikastea zen, punta sartu, ez sartu... Denbora ona egiteak ez ninduen gehiegi kezkatzen. Ondo egin nahi nuen,

besterik ez. Txapelketa hitza entzutean gorputza aldatzen da, urdurtasunak hasten dira eta prestakuntza bat eskatzen du, bai.

Zerotik ikasteak badu alde onik?

Askotan esan izan didate, kalekumea izanda segan nola egin nezakeen. Nire alde ona zen aurretik ez nekiela segan egiten. Baserrian segan aritu denak oso desberdin egiten du, postura desberdinean, sega kolpea ere txikiagoa da... nik horrelakorik ez nuen. Zerotik hasi nintzen, eta zerotik hasita txapelketa batean lehiatzeko modu egokiena irakatsi zidan Joxek. Nik ez neukan bizio txarrik, onik ere ez, baina ezta txarrik ere. Horrela, txapelketa baterako ondo zer egin behar den ikasi nuen.

Lehen txapelketetan nola ikusten zenuen zeure burua?

Gipuzkoako Azkartasun Sega Txapelketan hartu nuen parte lehen aldiz, Zizurkilen egin zen eta bigarren

egin nuen. Pentsatu nuen: «Ez dakit segan, baina banoa pixkanaka». Ikasteko gogo gehiago piztu zitzaidan, ikusten nuen neure burua gai zela hor egoteko.

Lehiatzeko bazen nahikoa emakume?

Azkartasun txapelketetarako bai. Ordura arte inoiz ez zen egin, ordea, emakumeen txapelketarik «ohiko era» deitzen dioten modalitatean, belarra pisatzen denean. Gipuzkoako lehena 2012an egin zuten, eta Arrate Garin legorretarrak irabazi zuen. Neska hura gainditzea zen nire helburua.

Eta iritsi zinen gainditzera?

Hurrengo urtean azkartasunekoa nik irabazi nuen eta gertu ikusten nuen, berarekin lehiatzeko moduan ikusten nintzen. Zu baino gehiago den norbait aurrean baduzu, badakizu horretarako prestatu behar duzula, baina kontua da txapelketa bat irabazten duzun



«Nobedadea zen, inoiz emakumea ez zen plazan ikusi, baina baserrian aritzen zen ba?»

momentuan, hurrengo urtean zu zoazela txapeldun modura, orduan, jendeak berriro ere zuk irabaztea espero du, eta irabazten ez baduzu? Presio puntu bat eragiten zidan horrek.

Hala ere, txapelak irabazten jarraitu zenuen.

Azkartasunean Gipuzkoako Txapelketa zein Almitzako Txapelketa irabazi ditut; pisuko modalitatean Euskal Herrikoak lau egin dira eta laurak dauzkat. Batzuk baditut, bai.

Askotan zure anaia Gaizkari eskaini izan dizkiozu.

2005eko maiatzaren 21ean egin zuen bere buruaz beste nire anaia. Nire bizitzako zati bat bertan gertatu zen, eta txapelketetan beti eraman izan ditut bere begiak nire kamisetan, argazki batean. Indarra ematen dit, hemen sentitu nahi dut, gertu. Ez dago aldamenean, baina oso presente izan dugu beti. Txapel asko eskaini dizkiot, txapelketa aurretik laguntza ere eskatu izan diot, bete egiten nau.

Segaz gain, trontzan ere aritutakoa zara.

Bai, trontzan Jaxone Aranbururekin atera nintzen. Igor Esnaolaren emaztea da, eta Esnaola trontzan ibilitakoa da. Saltsan ibiltzea gustatzen zitzaigunez, probatu egin nahi genuen eta animatu egin ginen. Gipuzkoako txapelketan atera ginen eta bigarren egin genuen. Gero, mistoan nire senarra den Xanti Aizpuruarekin atera nintzen bizpahiru urtez.

Zer moduzko esperientzia izan zen senarrarekin txapelketak prestatzea?

Oso polita izan zen. Asko bete ninduen. Entrenamenduetan haserre puntu hori izaten genuen, konfiantza dagoen lekuan badakizu zer gertatzen den [Barreak]. Orain, ordea, orduko argazkiak ikusten ditugu eta une hori polita da.

Eta aizkora ere probatu duzu. Apustu bat tarteko hartu zenuen lehen aldiz aizkora eskuetan.

Lehen aldiz jokatu genuen bi emakumek apustu bat, eta espero ez genuen arren, boom handia izan zuen. 2015ean izan zen, Irati Astondoaren aurka jokatu nuen. Berak segan eta korrika egin nahi zuen apustua, eta nik korrika ez nuela egin nahi esan nion. Behin ere ez ginen aizkora aritu, ez bera, ez ni, eta apustua itxi genuenetik sei hilabete genituen ikasi eta entrenatzeko. Biontzat zen berria.

Zer moduzko esperientzia izan zen?

Pila bat entrenatu genuen. Irabazi edo galdu nirea eman behar nuela esaten nion Igorri. Beti esan izan dut: irabazten didanak ni baino gehiago izan delako irabaz diezadala, ez nik ez dudalako nirea eman. Lau egur moztu behar genituen, eta ordubeterako falta zen denbora segan osatu behar genuen. Belar kilo gehien biltzen zuenak irabazten zuen. Beldurra nuen Iratik bost minutu baino gehiago kenduko zizkidala aizkora. Gainera, hasieran, aizkorarekin ez nuen ondo asmatzen eta etsi puntu bat ere izan nuen. Baina etxeko eta inguruko babesari esker, lasai hartu nuen. Inguruko baserrietakoek belardiak prestatu eta entrenatzeko utzi zizkidaten eta haiei ere zor nien garaipena.

Uste baino diferentzia gutxiagorekin amaitu zenuen aizkora.

Bi minutu ere ez zizkidan atera. Gainera, lehen enborra nik moztu nuen lehenago eta horrek ere indarra eman zidan. Igor Esnaola eta Iñaki Azurmendi nituen laguntzaile, eta haiek emandako lasaitasunari esker lortu nuen irabaztea. Estutzen banaute, ez dut ematen nirea, nik lasaitasun hori behar dut, animo mezuak entzun nahi ditut, goxotasunez anima nazatela. Aizkora amaituta, Igorrekin batera Joxe Gabirondok lagundu ninduen, arnasari buelta eman eta nire kabuz egiten utzi zidaten, lasai, patxadan. Eta hala lortu nuen irabaztea.

Motzean

Txapelik gogokoena?

Zizurkilgo Txapel Egunean jarri zidatena, herriak halako opari bat egiteak ez du parekorik.

Sega, trontza edo aizkora nahiago?

Sega.

Plaza onena?

Zizurkilgo Nekola baserriko belardia, apustua egin genuena.

Txapelketa konpletoena?

Irati Astondoaren aurkako apustua.

Laguntzaile bat?

Plazan Igor Esnaola eta egunerokoan Xanti Aizpurua.



Horren ostean, aizkora jarraitu zenuen.

Bazeuden aizkora oso ondo aritzen zirenak, Maika Ariztegi esaterako. Erakustaldi asko egin genituen aurrez, eta Donostiako Urrezko Kopan parte hartu edo ez zalantzan ibili nintzen, 2017an. Lehen urtean ez nintzen atera, eta bigarrenean animatu egin nintzen. Askok entrenatu nuen, baina ez nuen espero irabaztea. Banekien denboratan hortxe ibiliko nintzela, baina besteak ere hortxe zebiltzan. Irune Izkuek segituan hartu zigun denoi aurre, nik neurea egin nuen ordean, eta laugarren egurrean parean jarri ginen. Bosgarren eta azken egurrean irabaztea lortu nuen.



Bederatzi minututik behera egin nuen eta errekorra jarri nuen. Oraindik ez dute hautsi.

ibili zaren kirol guztiek eskatzen dute erreminta bat. Eta laguntzaileak ere bai.

Alde horretatik ez dut inongo arazorik izan. Segan sekulako laguntza izan dut, segak prestatu dizkirate, zorroztu, txukun jarri... eta segak duen beste beharrezko osagarria belarra da. Euria bada, askotan ez da moztu nahi izaten. Horretan, ordea, Amasako Aizperri baserriko Juantxo Beldarrain eta Rosa Arregik sekulako laguntza eman didate. Txapel guztiak beraienak ere badira. Badakit badagoela jendea entrenatzeko belarrik izan ez duena, eta nik ezin dut sekula esan ez dudala belarrik eduki. Deitu diedan bakoitzean utzi izan dizkirate, eguzkia izan edo euria ari.

Aizkoran berdin. Lanetik atera eta entrenamendua egin ahal izateko egurra prestatu behar da. Egurra ekarri behar da, prestatu, entrenamendua egin eta gero askatu, egurra moztu... eta berriro ere hurrengo entrenamendurako prestatu. Hori guztia bakarrik egitea ezinezkoa da. Jendea kexu izaten da mundu honetan jende gutxi dabilelako, baina zaila ere bada. Nik zortea izan dut inguruan laguntzaile asko izan ditudalako, eta bereziki, Zizurkilera etorri nintzelako bizitzera, bestela sega bat zer zen jakin ere ez nuke egingo.

Herri kirolak uzteko momentua iritsi zen, 2018an.

Parte hartu nuen Donostiako Urrezko Kopa horretan, bukatu eta dutxatzera joan nintzenean ezin nintzen makurtu galtzerdiak kentzera. Gerrian sekulako mina nuen. Uste nuen irabaztean min guztiak ahazten direla, baina ezin nintzen mugitu, gerria txikituta nuen. Kiste txiki bat daukat, eta kirola egitean handitu egiten zait eta nerbioa ukitzen dit. Egunerokotasunean ez dut ezer notatzen, baina entrenatzean hazi egiten zait. Eta egia esan, garaia ere hala eskatzen zidan. Bi haur ditut eta bizikletako karrerak, futboleko partidak izaten dituzte. Beti esaten zidaten: «Ama, etorriko zara ikustera?», baina txapelketa ez bazen erakustaldia izaten nuen. Horrek ere eraman ninduen uzteko erabakia hartzera. Txiki-txikitatik ibili dira haurrak gurekin, belaze guztietan izan ditugu alboan, entrenamenduetan ere bai, eta beraien garaia zela ikusi nuen. Ez naiz damutzen. Orain lasai bizi naiz.

Egunero lanera, entrenamenduak ere egin behar, bi haur etxean. Nola antolatzen zinen?

Aitona-amonak beti izan ditut ondoan. Beraiekin bizi gara, eta askotan, entrenatzera nindoanean, beraiek geratzen ziren hurrekin eta ni gauean iristerako, dutxatuta, afalduta eta ohean izaten ziren askotan. Gurasoen babesa sekulakoa izan dut.

Hastapenetara bueltatuz, lehen emakumeak izan zirenetan txapelketetan hasten. Zuen ondoren etorri da soka.

Lehen ere emakumeak aritzen ziren, baina egia esan, zentzu batean hedabideei esker etorri dira ondorengoak ere. Emakumeak telebistan edo egunkarian



ikusten dituzunean, jendea interesatzen da, bultzada hori dago. Jendeak ez badu ikusten, ez daki existitzen denik. Harri jasotzen bezala, Idoia Etxeberrria gaindituko duenik ez da izango. Orain neska mordoa hasi da harriarekin, baina Idoia aritzen zen garaian ez zegoen inor gehiago. Bere erronka zen bere burua garaitzen joatea, ez zuen beste aukerarik.



Herri kirola bereziki mundu maskulinoa da. Emakume izateagatik inoiz sentitu izan zara deseroso?

Inoiz ez. Adibidez, Igorrekin zorroztaile bezala aterantz nintzen txapelketa batean, eta izan ziren komentarioak «Beno, beno, emakume bat zorroztaile?» eta halakoak. Inportantziarik ez nien ematen ordea. Egia dena da nobedadea zela, behin ere ez zelako ikusi emakumea plazan, baina lanean baserrian aritu da ba? Bai segan eta bai zorrozten ibili da. Plazan jardute hori ez zen ordura arte ikusi, baina guk natural bizi genuen. Ni behintzat inork ez nau gutxietsi emakume izateagatik, oso ondo zaindu gaituzte zentzu horretan.

Afizioz herri kirolean, baina ofizioz ere beti kirole-tik gertu. Aralar Kirolak dendan lehen, orain Arsua-ga Bizikletetan.

Aralar Kirolak 18-19 urterekin hasi nintzen eta 21 urte egin nituen bertan lanean. Eta duela lau urtetik Arsua-ga Bizikletak dendan nago. Horrela tokatu zait egia esan, hasieran mendiari lotuta, orain bizikletari gehiago, beti kirol mundutik gertu eta kirolari artean. Gustura, gustuko lanarekin. Lanera gustura joaten naiz eta ez dago gehiago eskatzerik.

«BEGIRADAK SAIHESTEKO JARTZEN DUT ILEORDEA»

Hiru urte zituela gorputzeko ile guztia galdu zuen Etxaburuak. Profesionalek alopezia areata unibertsala diagnostikatu zioten. Hemezortzi urte ingururekin erosi zuen lehen ileordea, eta geroztik gehienetan hala erabiltzen du, hobeto ikusten delako eta begiradak ekiditeko.

Zer da alopezia zuretzat?

Behin ere ez naiz jarri begira zergatik gertatzen den, zein diren soluzioak. Gaur egun, alopezia duten pertsonen taldeak aurki daitezke sare sozialetan eta gomendioak ematen dituzte. Buruan ilerik ez eta gorputzean izan banu, agian kasu egingo nieke, baina nik ez daukat inon ilerik, beraz, ez naiz horretan jarri.

Zein izan da zure kasua?

Hiru urterekin galdu nuen ile guztia. Medikuek esan zidan alopezia areata unibertsala nuela. Nire gorputzean ditudan zenbait zelulek ez dute ilea sortzen, ez daukate indarrik, eta erori egiten da. Txikitan bai, buruan likido bat ematen nuen, akupuntura egiten zidaten, mediku, petrikilo, sorgin, psikologo eta gehiago pasa nituen. Hala ere, ez neukan ilerik. 13 urte ingururekin berriro ilea etorri zitzaidan, inork ez daki zergatik. Eta 18 urte ingururekin berriro galdu nuen, gaur arte.

Nerabea zinenean itzuli zitzaizun eta geroxeago berriro erori. Nola bizitu zenuen etapa hori?

Ez daukat oso gaizki pasa nuenaren oroitzapenik edo etxetik atera nahi ezik egon nintzenik gogoan. Etorri zitzaidanean opari moduan ikusi nuen, baina aurretik ere gabe egona nintzen. Oraindik batzuetan esaten dut: «Jo, zergatik ez daukat nire ilea? Motots bat egin nahiko nuke!». Baina arazoari ez diot buelta gehiegi ematen, ez dudalako ezer konpontzen.



Haurra zineneko oroitzapenik baduzu?

Haurrak haurrak dira. Umeek barre egiten dute, burla ere bai. Bizitza horrela da, ezin dira saihestu. Norbaitek barre egiten bazidan, erantzun egiten nion edo etxera iritsitakoan amari kontatzen nion. Nire ama nire babesaren kasurik ez egiteko esaten zidan, politena ni nintzelako. Zer esango dit ba nire amak?

Gurasoak beti izan dituzu hor.

Ilea galtzen hasi nintzenean asko kezkatu ziren. Batera eta bestera eramaten ninduten.

Behin, esan zieten ilea erortzearena trauma baten ondorio izan zitekeela eta psikologo batengana joan nintzen. Hark segituan esan zien gehiago ez eramateko ez psikologo ez psikiatra batengana, ez nuelako inongo arazorik, ume zorionsua eta osasuntsua nintzela. Oroitzapen txarrik ez dudanez, nik uste besteek gehiago sufritu zutela momentuan nik baino. Adibidez, ordea, orain, ama naizen honetan, uste dut sufrituko nukeela.

Eta emakumea zara gainera.

Kanon jakin batzuetan egotea eskatzen du gizarteak. Seguru nago mutil bat burusoil ikusita normaltzat hartuko genukeela, eta agian oso gaizki ari da pasatzen, ezin da jakin. Denoi gustatzen zaigu geure burua ondo ikustea, gustura sentitzea. Zergatik makillatzen da jendea? Hobeto ikusteko, ezta? Nik ileordea ere hobeto ikusten naizelako jartzen dut. Askotan esaten du jendeak: «Zaren bezalakoa izatea onartu behar duzu». Nik onartzen dut naizena, baina bata ez du bestea kentzen. Polita ikustea gustatzen zait, besterik ez.

Naturaltasunez daramazu.

Ahalik eta ondoen eramaten saiatzen naiz. Ileordea

jartzen dut edo zapiak erabiltzen ditut, jendearen begiradak saihesteko eta neronek ere neure burua hobeto ikusteko. Ilerik ez dudala esateak ez dit batere lotsarik ematen. Eta ileordea ez badut gehiago kentzen jendearen begirada ekiditeko da. Baina nik ere begiratzten dut eta badakit nahi gabe egiten dugula. Norbait zapiarekin ikusten dugu eta begiratu egiten diogu, eta gainera, aurpegi tristea jartzen dugu, errukiz begiratzten diogu. Ez dugu hori behar. Nik ez daukat ezer, baina beste batek agian atzetik gaixotasun bat darama, eta zama bat baino gehiago ditu: batetik gaixotasuna, bestetik ile falta...

Begirada horiek min ematen dute?

Ez dakit mina den, hori baino gehiago esango nuke pena aurpegi horrekin ez begiratzeko. Ez diot inori pena eman nahi. Ondo nago. Konplizitatea lortzeko begiradak izaten dira askotan, baina akaso, pertsona horrek ez du hori behar, agian beste pertsona bati kasu egingo lioken bezala egitea behar du berak ere.

Askotan, ilerik eza minbiziarekin lotzen da.

Galdetu izan didate bai ea gaixorik nagoen. Eta sare sozialetan ilerik gabe agertzen naizen argazkiren bat jarri izan dudanean, galdetu izan didate ea zer gertatzen zaidan. Jendeari esan ilerik ez daukadala eta sorpresaz hartzen du, batzuk ez direlako ohartu.

Ileordea jartzea ere hautu bat egitea da.

18 urte ingururekin, berriro erortzen hasi zitzaidan, hutsunak nituen buruan. Nire amak galdetu zidan ea berriro medikura joaten hasi nahi nuen eta ezezkoa erabaki nuen. Bartzelonan ile naturalarekin egindako ileordeen zentro bat zegoen eta hara joan ginen. Ileorde haiek siliko-

narekin burezurrari lotuta zihoazen, 10-15 egun pasa ostean kendu egiten zenuen, guztia garbitu eta berriro jarri. Bi urte inguru egin nituen horiekin. Minbiziaren kontuarekin, orde, aurrerapen gehiago izan zuten ileordeek eta aukera gehiago nuen, prezio aldetik ere denetarik zegoen. Kendu eta jarri egiteko ileordea probatu nuen ondoren, eta salbazioa izan zen. Beste ileordearekin lo eta guzti egin behar izaten nuen, eta sarea duenarekin askoz erosoago sentitzen naiz, nahi dudanean kentzen dut, hondartzara noanean kendu egiten dut, etxera iristean ere bai, arnasa hartzen dut.

Zenbat ileorde dituzu?

Berrogei bat bai. Zahartu ere egiten dira orde, kalitatearen arabera. Ezin ditut berrogei ileorde mila eurokoak eduki. Badakizu zein erosten duzun data konkretuetarako eta zein egunerokorako.

Faltan botatzen duzu zure ilea izatea?

Bai, izugarri gustatuko litzaidake nire ilea izatea, ilearen sentazio hori sentitzea. Nire ahizpak, esaterako, ile asko du, kalparra askotan heltzen diot, ze gozatua.

Egunerokoan trabarik eragin dizu ileordea erabiltzeak?

Oztoporik ez, baina beti dago hor. Hondartzara banoa ez dut eramaten, baina zuzenean lanera joan behar badut motxilan hartzeaz gogoratu behar izaten dut. Betaurrekoak erabiltzen dituen bezala da, osagarri bat. Hala ere, ez da oztopo bat izan zerbait egiterakoan. Txapelketa guztiak, esaterako, ileorde motzarekin egin izan ditut, erosoagoa delako. Baina agian, bazkaltzera joateko ileorde hori kendu eta meleana luze batekin joan izan naiz. Ez da zerbait ezkutatu nahi dudana.



Ikasgela berriak



JOSU OZAITA
KMK
KOORDINAZIOA

Eskolak eta ikastolak bizitzarako tresna ikusezinak ematen laguntzen digute, kaleko unibertsitateak eskaintzen dizkigunekin batera. Idazten, irakurtzen, autonomo izaten, hausnartzen...

irakatsiko digute, eta hala, ia bizitza osoa ikasten pasata ateratzen gara hezkuntza formaletik; ia burujabe. Lehen sosekin batera gurasoen etxetik independizatzea ere oso presente izan ohi dugu. Bagoaz!

Eta segituan, lehen hortzetakoa: erosketak etengabe egitea eta egunero hiru otordu egin beharra. Eta orduantxe, jartzen dugu balioan ordaindu gabe dagoen lana eta ardura. Orduantxe konturatzen gara, ia 30 urte ikasten egon ondoren, ez dugula kozinatzen ikasi.

Hezkuntzaren lehen ikasgaietan beharko lukete baratz zaintzak, nutrizioak eta gastronomiak. Ia sinboliko izatetik, benetako ikasgela izan beharko luke baratzak, esaterako. Bertan saiatu ikasten naturaren balioa, garaian garaiak zergatik den, eta elikagai bat sortzearen denborak. Baina, zertarako balio du hori dena irakasteak, praktikan beste eredu bat irakasten ari bagara? Zertarako teoriak, gero catering merkeenari ematen bazaizkio gure ikasleen bazkariak? Pentsatu gabe betetzen badugu saskia?

Gure ikastolan duela urte mordera erabaki zuten sukaldari propioa izatea, bertan kozinatu eta inguruan erosketak egitearen garrantzia praktikara eramatea. Goizero, usain desberdin batek hartzen du ikastolako sarrera, ikusten ditugu bertako harategietatik bazka-

rirako haragia ekartzen, baserritarra barazkiez saskia beteta... Hala ere, oraindik asko dugu ikasteko. Ikasleak bertaratu beharko genituzke goizean, kazuelak ireki, usainak sentitu, lñigo sukaldariari entzun nondik datorren produktu bakoitza, eguraldiaren eraginaz hitz egin edota produktoreak ikasgeletara gonbidatu. Kilometroak hauek ere, bide horretan pauso batzuk izatea nahi dugu, eta saiaturako gara bertakoa zaintzen, eta sukaldeetan ere bilerak egiten.

Ikasi beharra daukagu, jaten dugun produktu bakoitzak zenbat kilometro egin dituen guk platerean izan arte, eta horrek uzten duen arrastoa. Ikasi beharra dugu lurtean eta inguruan hazitako tomateek zein zapore duten, eta zapore hori ikastea, ez dugu besterik nahiko. Ikasi beharko dugu, elikagaien atzean familiak daudela, gure inguruko paisaia produktu ho-

riek erosiz eta janez egiten dugula. Ikasi dezagun eskuekin jaten, sudurrera gerturatu eta usaintzen, zaporeei gustua hartzen...

Behin, sukaldari bati entzun nion, supermerkatuan karroa betetzen dugun aldiko, inguruko produktoreak fusilatzen ditugula. Irudi latza! Jakoba Erre-

kondorekin tertulian, momentu honetan jaten dugunaren %15 soilik produzitzen dugula esan zidan. Jantoki kolektibo guztietan (ospitaleak, eskola eta ikastolak, lantokiak...) bertako produktuak jango bagenitu, beste Euskal Herri bat izango genukeela, eragile diren baserriak, osasuntsuago dagoen gizartea, eta beste paisaia bat: ederragoa eta biziagoa. Gure kontraesanak kontziente egin behar ditugu, gure erosketen eragina sentitu eta pausoak ematen jarraitu. Bilakatu ditzagun baratzeak eta sukaldeak benetako ikasgela berri.





Key Lan

SARRAILDENDA

Nafarroa etorbidea, 13 behea
TOLOSA
 Tel. Fax. WhatsApp. 943 65 03 13

www.keylan.es

ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
 TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM

sariduna

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

Acunsa Gipuzkoa -
C.B PRAT
 partida ikusteko

• Jabi Lasa (Tolosa)

Maiatzak 13, ostirala
 21:00etan · Donostia Arenan

ATARIA jarriko da harremanetan

Aita eta ama izan zaitezke: emakumeak prezio onean alokatzen dira



**GARBIÑE
BIURRUN
MANCISIDOR
EPAILEA**

J oan den martxoaren 31n, Espainiako Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko aretoak,

Osoko Bilkuran, epai garrantzitsu bat eman du. Epai horretan, emakume baten ama-

seme-alabatasuna lege zehazteko akzio bati buruzko ebazpena eman du. Auzian, funtsean, demandatzaileak eskatzen zuen deklaratzeko adingabe baten ama zela, haren zaintzaz arduratzen zela eta deklarazio hori Erregistro Zibilean inskribatzea.

Jakina denez, emakume demandatzailearen eta beste emakume baten arteko kontratu baten ondorioz jaio zen haurra. Merezi du kontratu horren oso kontratu arrunta gai honetan: klausula izugarrietako batzuk aipatzea: haurra ernalduko duen emakumeak uko egiten diela jaiotako haurrari buruzko eskubide eta erreklamazio guztiei, eta onartu egiten duela haurra erditu eta berehala ematea ama izango denari inolako interferentziarik egin gabe; ez duela izango haurrarekin harremanik, eta ez dela saiaturiko haurrarekin harremanik izaten, eta lagunduko duela ama izango dena haurraren legezko ama deklaratzeko beharrezkoak diren lege-egintza guztietan; onartzen duela ez dela haurraren ama legala, naturala, juridikoa edo biologikoa; azterketa medikoak, odol-analisiak eta beste proba psikologiko batzuk egingo zaizkiola, etorkizunean ama izango denak erabakiko

duenaren arabera, in vitro ongarritze-prozedura ororen aurretik, egokia den zehazteko; ebaluatuko duten espezialistei aukera emango zaiela emaitza horiek ama izango denarekin partekatzeko; jokabide jakin bati eutsi behar diola: astero ama izango denari informazioa eman, dieta bat mantendu behar duela, sexu-harremanik ez duela izango, sendagaiak hartzea edo tabakoa edo lege kanpoko belarrak eta alkohola kontsumitzea debekatzen zaiola, ezin izango dela bizi den hiritik irten, ezta bizileku-aldaketarik egin ere, ama izango denak idatzizko baimena eman ezean; heriotza eragin dezakeen gaixotasunaren edo lesioaren kasuan, ama izango denak haurdun dagoena bizirik mantentzeko eskubidea duela, fetua salba-

«Hau da, umeak kontsumo-ondasun gisa ekoizteko 'proletariatza erreproduktiboa' sortu da, kosta ahala kosta guraso izan nahi dutenentzat»

tzeko bizi-euskarri mediko batekin; haurra erditu eta berehala emango zaiola ama izango denari, eta haurdunak baimena emango diola ospitaleari adingabea-ri ama izango denaren izen-abizenak jartzeko; haurdun dagoenak ezin izango duela haurdunaldia eten, bere bizitza zaintzeko izan ezik, eta horren berri eman beharko diola ama izango denari ere; haurdu-

nak ez duela inoiz haurraren gaineko ama izateko eskubidea erreklamatu...

Auzitegi Gorenak zera dio -eta ni guztiz bat nator arrazoibide horiekin-:

- Merkataritza-ordezkapenagatiko haurdunaldiak -nik sabelen alokairua edo emakumeen alokairua deitzen diot- urratu egiten dituela Konstituzioan eta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenetan emakume haurdunaren eta haurraren oinarriko eskubideak, eta gogorarazi egiten du kontratu horiek erabat deusezak direla, Lagundutako Giza Ugalketarako Teknikei buruzko 14/2006 Legearen arabera;

- Europako Parlamentuaren 2015eko abenduaren 17ko Ebazpena ekartzen du gogora -ebazpen honetan, ordezkapenagatiko haurdunaldia gaitzetsi zen, emakumearen giza duintasunaren aurkakoa zelako-;

- Gogora ekartzen du baita ere Nazio Batuetako Kontalari bereziaren eta Espainiako Bioetika Batzordearen txostena, haurren haurdunaldi subrogatua helburu duen merkatuaren logika gaiztoa nabarmentzen dutenak;

- Ama haurdunaren ikuspuntutik, arazoa egoera ekonomiko eta sozial ahulean kokatzen du;

- Eta, era berean, bitartekaritza-agentziaren presentzia azpimarratzen du, bere negozioa praktika mota hori baita;

- Haurraren ikuspuntutik, esaten da bere jatorria ezagutzeko eskubidea kentzen zaiola, eta «gauza» bat bezala tratatzen dela;

- Praktika hau delitu bat izan daitekeela;

- Gogorarazten du baita ere Legez kontrakoa dela pertsonaren duintasunaren aurka egiten den publizitatea eta, hala eta guztiz ere, badirela gure inguruan agentzia bitartekariak feria presentzialak ere antolatzen dituztenak, zerbitzu horien publizitatea egin eta sustatzen dituztenak, eta maiz ezagutzen ditugula

pertsona ospetsuei -edota pertsona «arruntei»- buruzko berriak.

Hainbat herrialdetan araudi desberdinak daude: batzuek modu altruistan onartzen dute praktika hori -nik ez dut inolaz ere horretan sinesten, harreman pertsonal oso estua ez badago-; beste batzuek, berriz, praktika hau onartzen dute irabazi-asmoekin, eta merkataritza-jarduera gisa ere arautzen dute, agentziekin, publizitatearekin eta haurdunentzako kontraprestazioarekin -Errusian, Israelen, Mexikon edo Ukrainan-.

Ukrainan, adibidez, lekukoen arabera, emakumeak egon dira giltzapean hainbat hilabetez, haurdunaldia pasatzen benetako kuartel gisa kudeatutako lekuetan, beste emakume edo gizon batzuentzat haurrak «egiten». Eta gauza bera beste herrialde batzuetan: Indian adibidez, bertako gobernuak atzerritarrentzako haurtxoak sortzea debekatu zuen arte, ordurako 25.000 haur inguru salduak izan zirela kalkulatu.

Hau da, umeak kontsumo-ondasun gisa ekoizteko «proletariotza erreproduktiboa» sortu da, kosta ahal kosta guraso izan nahi dutenentzat.

Ez dakit zuek, baina nik ez dut ezagutzen beste emakume bat -beharbada, harreman pertsonal oso hurbileko kasuetan izan ezik- aipatutako baldintzetan kudeatu eta erditu nahi duenik. Nik ez nuke egingo. Libreki erabaki ahal izateko zoria dugun emakumeok ez genuke hori egingo. Ez genieke inoiz uko egingo gure askatasunari eta duintasunari.

Auzitegi Gorenak dagokiona egiten du: kasu bat ebatzi eta bere doktrina ematen du. Orain pilota -emakumeen eta adingabeen duintasuna, alegia- aberrazio horrek aurrera egitea eragozten duten arauak ematen jarraitzeko eskumena dutenen esku geratzen da, hau da, Gobernuaren eta Legebiltzarren esku, bai eta Fiskaltzaren beraren esku ere, gertakari horiek jazartzeko.



**ARITZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA**
AEK-KO EUSKARA
IRAKASLEA

ARITZIA Kolohore

Zer litzateke mundua kolorerik gabe? Pentsa ezazu une batez: ez ostadarrik, ez zeru gorri, urdin edo grisik. Gure hitz egiteko era errotik aldatuko litzateke. Inor ez legoke

kale gorrian, eta printze urdinik gabeko ipuinak kontatuko genituzke. Akaso, betaurreko moreak sortzeke leudeke.

Kolorerik ezean, banderak ere akabo. Ukrainako gerraren harira, badirudi horrelako zerbait pentsatu dutela hainbat hedabide eta erakundek. Duela pare bat aste lehiatu zen Liège-Bastogne-Liège klasikoa. Pelotoian Aleksandr Vlasov zebilen, Errusiaren inbasioa publikoki gaitzetsi duen txirrindularia. Kirol-proba ia guztietan ohikoa izaten da parte-hartzailearen izenaren alboan herrialdearen bandera agertzea, baina, oraingoan, bandera errusiarraren ordezkia zuria agertzen zen telebistako pantailan. Bitxia da, behinik behin, gerra hastea leporatzen dioten herrialdeari bakearen kolorea ipintzea.

Sarean arakutzen ibili ostean, ohartu naiz Procyclingstats-en, txirrindularitzan erreferentziazkoa den webgunean, ez dela Errusiako banderarik ageri, hor ere bandera zuriarekin ordezkatu dute Vlasoven aberria. Horrez gain, Munduko Txirrindularitza Elkargoak ** idatzi du errusiarraren nazionalitatea definitzeko. Geroa hastear izanik eta ikurrina posible ez bada, gustura asko ikusiko nituzke pantailan euskal txirrindulariak Vlasovi jarririko banderarekin.

Alabaina, afera ez da gurpil artean kateatzen, izan ere, Victoria Azarenka eta gainerako tenislari herrikideak umiliazio berbera jasaten ari dira. Madrilgo tenis txapelketan ez dago errusiarrak izendatzeko inongo ikur eta hizkirik. Badago, beraz, zarena ukatzea baino zigor ankerragorik? Kirola eta politika nahasi behar ez direla maiz entzuten den arren, kirola eta politika ezin dira bereizi. Bestela, zer da ereserkia entzutea eta entzunaraztea, ekintza politikorik gorenena ez bada?

Tamalez, Errusiarekin lotura duen oro laidotu eta orbandu beharra ez da kirolera soilik mugatzen. Municheko alkate sozialdemokratak bertako orkestra sinfonikoko zuzendaritzatik kargugabetu zuen Valery Gergiev zuzendaria, Putinzalea zela iritzita. Sinesgaitza dirudien arren, Milano-Bicocca unibertsitateak bertan behera utzi zituen Fiodor Dostoievskiren inguruko literatura jardunaldiak. Sekulako zentzugabekeria da 1904an zendutako idazlearen lana egungo egoerarekin alderatzea. Zer izango hurrengoa, liburutegi eta liburudendetatik *Ana Kareninaren* aleak deuseztatzea?

Irabazi aurretik galtzen ikasi behar omen da. Baina, gerran bata bestea baino gehiago galtzen badu, nork irakas lezake irabazten? Zibil umil andana dabil bizi ala hil. Etzanda edo zutik egonagatik, dagoeneko ohorea lurpean du batek baino gehiagok.

«Badago, beraz, zarena ukatzea baino zigor ankerragorik? Kirola eta politika nahasi behar ez direla maiz entzuten den arren, kirola eta politika ezin dira bereizi»

AGENDA

OSTIRALA

MAIATZAK 6

AMASA-VILLABONA

TERTULIA

18:00. *Zaintza erdigunean* tertulia. Lurgatz talde feministak antolatuta, Txoko Morean.

INAUGURAZIOA

19:00. Maria Jose Labourdique eta Seve Iglesias-en pintura erakusketaren inaugurazioa. Gurea erakusketa gelan.

KONTZERTUA

22:00. Patxuko Nice eta Emon taldeen kontzertuak Sahrijaik antolatuta, Aljibean.

ANOETA

TOPAKETA

19:00. Herriarteko dantzari gazteen topaketa. Legorretako Irrintzi Alai, Ordiziako Amets Bide, Lazkaoko Oinarin eta Anoetako Anitz dantza taldea. Herriko plazan.

IKASTAROA

17:30. Ahalduentze ikastaroak emakumeentzat. *Mindfulness*. Bost euro. Gela balioanitzean.

BERASTEGI

IRTEERA

09:00. Irteera Iratxe bodegara eta bere ardo museora, Gaztainondo elkarteak antolatuta.

BERTSO SARIKETA

21:00. Mingaiñe saltsan 2022 bertso sariketa. Bigarren finalaurrekoa. Bertso afaria. 25 euro. Tiketak Ategin salgai. Berastegiko aretoan.

OREXA

SANTA KRUTZ FESTAK

20:00. Pintxo afaria ostatuan. Ondoren. DJ Txoko.

TOLOSA

IKASTAROA

17:00. Jabetze eskola. *Nik ere baditut ikasketak. Nola homologatu?* Katia Reimberg Castello prestatzailearekin (Bidez Bide Elkarte). Gaztelaniaz. Doan (aurrez izena eman behar da). Kultur etxean.

TOLOSATZEN

18:00-20:00. *Kontzienteki bizi* da Tolosatzen Eskola Irekiaren denboraldi honetako leloa. *Heriotza duina* dibulgaziozko topaketa, Iñaki Peñarekin, elebitan, kultur etxean. Heriotza duina eta zainketa aringarriak, non gure adinekoengandik eta haien senideengandik hurbilen dauden mediku espezialistek parte hartzen duten gai oso eztabaidagarri baten inguruan. Iñaki Peña profesionalaren eskutik, 2010az geroztik, zainketa aringarrietako mediku ondokoa Debagoienako Ospitalean (Arrasate). Kultur etxean.

INAUGURAZIOA

Euskal Eskultoreen Elkartearen erakusketa ibiltaria. Euskal Herri osoko ehun eskultore baino gehiagoren lanak biltzen ditu *Gaurko euskal eskultura* erakusketak, Aranburu jauregian.

18:30. Aurkezpena.

19:00. Inaugurazioa.

KONTZERTUAK

20:30. Ismael Serranoren kontzertua, Leidorren.

22:00. Teething eta Vibora taldeen kontzertua, Bonberenean.



LARUNBATA

MAIATZAK 7

AIZTONGO

IBILIAN IBILIAN

Ibilian Martxak Oriora. **Irakurri erreportajea 4-7 orrietan.*

08:45. Adunako plazatik.

08:30. Villabonako Berdura plazatik.

08:30. Asteasuko plazatik.

08:30. Zizurkilgo Joxe Arregi plazatik.

AMASA-VILLABONA

PALA TXAPELKETA

Emakumeen IV. Pala Txapelketa Azkarra.

11:00. Hasiera.

15:30. Finalerdiak.

16:30. Finala.

HALTEROFILIA TXAPELKETA

10:30-19:30. Villabonako Olaederra Kiroldegian, absolutu mailako Euskadiko Halterofilia Txapelketa izango da goiz eta arratsaldean.

BERASTEGI

19:00. Bengoetxea VI - Bengoetxea VII vs. Maiz - Erasun. Partida amaieran, pilotari guztiek sinatutako herriko pilota-kamiseta bat zozkatuko da.

Parte hartzeko bi eurotan boletoak jarriko dira salgai.

BERROBI

IKASTAROA

10:00-12:00. Argazkigintzaren oinarriak ezagutzeko ikastaroa. Etxolan.

IKAZTEGIETA

DANTZA IKUSKIZUNA

19:00. *genEroa* dantza ikuskizuna, Kimua dantza kolektiboaren eskutik, plazan.

IRURA

KANTU BAZKARIA

14:30. Kantu bazkaria, euskal parrilaren eskutik izango da bazkaria eta Joxe Mendizabalen musikarekin girotuko da eguna. Irurako gazte asanbladak antolatuta. San Migel plazan.

OREXA

SANTA KRUTZ FESTAK

16:00. Ume jolasak eta txokolatada.

21:00. Herri afaria ganbaran. **Ondoren.** DJ Txoko.

TOLOSA

JABETZE ESKOLA

09:00. Xaboi natural egiten ikasteko tailerra. Bidatz Sasiain prestatzailearekin. Euskaraz eta gaztelania. Doan (aurrez izena eman behar da). Ereite Elkartearen lokalean (San Esteban, 20).

AUTOBUSA

Kontseiluak deituriko Iruñeko manifestaziora joateko autobusa, Galtzaundik antolatuta. *Herritarrek ez gutxietsi.*

Eskubideak guztiontzat! lelopean.

16:00. Tolosan, zezen plazan.

16:00. Villabonan, elizan.

HAUR IKUSKIZUNA

18:00. Teatro Paraisoren *Leihoak* ikuskizuna. Euskaraz. 2-5 urte bitarteko umeei zuzendurik eta euren familientzat. Topic-en.

KONTZERTUA

22:00. Cuello eta Lamiak taldeen kontzertua, Bonberenean.

TOLOSALDEA

IBILIAN IBILIAN

Sare eta Izan Bidearen Tolosaldea ibilian ibilian etxerako bidean.

**Irakurri erreportajea 4-7 orrietan.*

11:00. Anoeta.

11:00. Alegia.

11:15. Lizartza-Txarama.



11:30. Ibarra.

12:00. Tolosa. Kalejira Plaza Zaharretik.

ZIZURKIL

ERROTA EGUNA

10:30-13:00. Akezko errotara bisitak. Gonbidapenak udal bulegoetan. Akezko errota martxan jarriko da eta funtzionamendua ikusteko aukera egongo da.

11:30. Umeentzako talo tailerrak eta El Salvadorren aldeko talo postua.

12:00. Erromeria Joxe Arregi plazan, Bukalai eta Loatzos musika eskolaren eskutik.

22:00. Korrontzi taldearen kontzertua Intxaur frontoian, Aita Mari itsasontziaren alde. Sarrerak 5 euroko kostua izango du.

IGANDEA MAIATZAK 8

ALTZO

GIPUZKOAKO ERROTEN EGUNA

10:15. Altzoko Handiaren ibilaldi gidatua (dokumentala, erakusketaren bisita, Altzo Muñotik Altzo Azpira oinez ...).

12:00. San Salvador-Bekoa (Altzo Azpi) Errotaren bisita: martxan jarriko da eta zenbait azalpen emango dira.

12:30. Oinez abiatzea Altzo Muñorantz.

AMASA-VILLABONA

ANTZERKIA

19:30. *Kopaz kopa* helduen antzerkia. Sarreraren prezioa 10 euro. Iñigo Aranbarri, Ainara Ortega, Ainhoa Aierbe eta Asier Sota. Gurea antzokian.

AMEZKETA

GIPUZKOAKO ERROTEN EGUNA

12:00-14:00. Ieraregibizkar errota gune turistiko-kulturala erakusteko bisita gidatua eta talo tailerra. Errota zaharra martxan ikusteko aukera izango da. Izen-emateak: 609 34 90 09.

ASTEASU

GIPUZKOAKO ERROTEN EGUNA

11:00. Plazatik abiatu eta Urniategi errotara bisita Burdina taldearen azalpenekin.

Ondoren. Txuringaineko errotara bisita.

BALIARRAIN / IKAZTEGIETA

AUTOBUSA

Herri Urratsera joateko autobusa.

09:00. Baliarraindik.

09:15. Ikaztegietatik.

Itzulera 18:30ean Senperetik.

10 euro. Herriko ostatuetan izena emateko aukera.

BERASTEGI

IBILALDI NEURTUA

07:00. Basurde, elkarteak antolatuta. 7 orduko iraupena.

XX. MENDI IBILALDI LABURRA

09:00. Basurde eta Beasti guraso elkarteak antolatuta. 9 kilometroko ibilaldia, plazatik.

IBARRA

MENDI IRTEERA

09:00. Bidetxur Ibarrek antolatuta, mendi irteera Ibarra azken mugarren bila. 19,4 kilometro, 860 metroko desnibela. San Bartolome plazatik.

LARRAUL

GIPUZKOAKO ERROTEN EGUNA

Txuringaineko errotan ate irekiak.
10:30. Herriko plazan elkartu eta Txuringain errotara oinez.
11:00. Bisita Txuringaineko errotan.

OREXA

SANTA KRUTZ FESTAK

12:00. Meza Santa Krutz elizan.
Ondoren. Donosti Eserki Abesbatzaren eskutik, Orixeren oparia, gregorianoa, euskaraz.
18:00. Bertso saioa ganbaran. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Unai Mendizabal, Aitor Mendiluze eta Oihana Iguaran.
20:00. Sagardo dastaketa. Festei amaiera emateko, oilarraren igoera.

TOLOSA

GIPUZKOAKO ERROTEN EGUNA

11:00 eta 12:00. Bisita libre eta gidatua eta txokolate tailerra, Rafa Gorrotxategi Txokolate Museoan.

KONTZERTUA

12:00. Amaterria taldearen kontzertua, Frontonen.

MENDI IRTEERA

Zumardiak antolatutako mendi irteera. 2011, 2012 eta 2013 urteetan jaiotakoei zuzendurik. Taldea osatzeko gutxienezko kopurua 6 lagun eta gehienezkoa 12. Irakaslea: Ibon Artola (Mendi Kirol Teknikaria-Mendi Gidaria). Prezioa: 40 euro (bazkideek 36).

MUSIKA ZUZENEAN

Slow Time Blues Band, 3 tabernan.

TOLOSALDEA

AUTOBUSA

Herri Urratsera joateko autobusa, Galtzaundik antolatuta.

09:30. Alegia, Ferreteriko geltokia.
09:35. Tolosa, zezen plaza.
09:40. Anoeta, Apaetxe baserria.
09:45. Irura, ikastola.
09:50. Villabona, eliza aurreko geltokia.
09:55. Zizurkil, Joxe Arregi plaza.

ASTELEHENA

MAIATZAK 9

TOLOSA

ELKARRETARATZEA

12:00. Tolosaldeko jubilatuen mugimenduak deituta, elkarretaratzea egingo dute pentsio duinen alde, udaletxe aurrean.

AURKEZPENA

19:00. *Gernikako arbolaren biografia. Euskal Herriko ereserkia.* Lizardi kultur elkarteak antolatuta. Jose Maria Espartza editoreak idatzitako liburua *Gernikako Arbolaren biografia: Euskal Herriko ereserkia* gaitzat hartuta, Gernikako Arbola kanta ezaguna Euskal Herriko ereserki modura aurkezteko egileak bere tesia agertuko du. Kultur etxean.

ZINEMA



EN SU PUNTO

Larunbata (19:30 eta 22:00) eta astelehena (20:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



EL HOMBRE DEL NORTE

Larunbata (21:30) eta igandea (19:00).
Tolosa, Leidor.



GO FISH: SALVEMOS EL MAR

Igandea (17:00).
Tolosa, Leidor.



PARIS DISTRITO 13

Astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.

IRRIBARRE BAT, 41 MODU

Ibarrako Uzturpe Ikastolak, sortu berri den Euskal Eskultoreen Elkartearen laguntzaz, formatu txikiko 41 eskulturekin osatutako 'Irribarte' erakusketa kolektiboa osatu du Benito Izagirre Kultur Etxean; maiatzaren 13a bitarte bisitatu daiteke, arratsaldez.

Josu Artutxa Dorronsoro

Ibarrako Uzturpe Ikastolak, aurtengo Kilometroak festaren barruan, tokia egin nahi izan dio euskal kulturaren atal garrantzitsua den eskulturaren lanketari eta hedapenari. Horrela, *Irribarte* izeneko formatu txikiko eskulturekin osatutako bilduma jarri dute ikusgai, Benito Izagirre Kultur Etxean, maiatzaren 13ra bitarte. «Artea, euskara eta *Irribarra* uztartzen dituen erakusketa da», azaldu dute antolatzaileek.

Felix Aiestaran ikastetxe-ko irakaslea, Guillermo Olmo eskultorearekin eta Migel Zeberio musikariarekin jarri zen harremanetan. Azken Muga ekimeneko antolatzaileak dira Olmo eta Zeberio, eta ekimenaren edizio batean, euskal eskultore ugariaren formatu txikiko lanak bildu zituzten, erakusketa bat osatzeko. Horrela sortu zen Ibarran antzeko zerbeit egin eta Kilometroekin uztartzeko ideia.

Eskultura desberdinez osatutako erakusketa kolektibo bat prestatu nahi zuten. Horretarako, sortu berri den Euskal Eskultoreen Elkartearekin jarri ziren harremanetan. «Kilometroak festaren mezua eta irudia

diren *Irribarra* leloa eta logoa gai bezala hartuta, eskultoreei obra txikiak egitea proposatu genien», adierazi du Nerea Mendizabal *Irribarte* batzordeko arduradunak. Behin artistei proposamena bidalitakoa, euren kabuz hasi ziren mugitzen. «Egun batetik bestera, atxikimendu handia izan zuen proiektuak,

eta azkenean, 41 eskultoreen lanak biltzea lortu dugu».

Batzordeko kideak «oso gustura» azaldu dira bildumarako jaso dituzten lane-kin: «Arte plastikoa zeinen hizkuntza aberatsa den erakusten du, gai berdinen inguruan jaso daitezkeen emaitzak askotarikoak direla, alegia. Izan ere, irribarrea adierazteko milaka modu daude, eta hauek, horietako batzuk besterik ez dira. Niri



oso interesgarria iruditzen zait, besteak beste, belau-naldi eta genero desberdineko artisten erakusleioa delako», nabarmendu du Mendizabalek.

Antolatzaileek argi zuten, Ibarran bertan eta inguruko herrietan eskultoreak baleude, bere lanak aurkezteko aukera eskaini behar zietela. «Gerora konturatu ginen, bai hemen, baita oso gertu ere, artista



ugari daudela». Azkenean, hiru ibararren eskulturak lortu dituzte. «Ziur badirela gehiago, ezezaguna den modalitatea delako», nabarmendu du Nagore Leon batzordeko kideak.

Hain zuzen, hori da Euskal Eskultoreen Elkartek bete nahi duen helburua: gizartea sentsibilizatzea. Horretarako, hezkuntza sistematik ekitea erabaki zuten, eta Kilometroekin lotutako erakusketa izan da osatu duen lehenengotariko bilduma. Bertarako atxikimendua adierazi duten eskultore guztiak, baina, ez dira elkarteko kide.

Ikasleak ere eskulturara bultzatuz

Inguruko herrietako ikastetxeei erakusketara goizez gerturatzeko gonbita luzatu diete batzordeko kideek. «Ez da ohikoa etxetik horren gertu horrenbeste euskal eskultoreen lanak biltzen dituen erakusketa bat ikusteko aukera izatea», adierazi dute. Aldiz, arratsaldean edonork bisitatu dezake erakusketa, 16:00etatik 20:00etara.

Erakusketan dauden obrak salgai daude, eta nahi duenak erosteko aukera du, bai kultur etxean, baita *Kilometroak.eus* webgunean ere. «Lortutako diruaren zati bat eskultoreentzat izango da, eta bestea,

«Irribarrea adierazteko milaka aukera daude, eta hauek, horietako batzuk besterik ez dira»

NEREA MENDIZABAL

ikastolarentzat». Behin Ibarako egonaldia amaituta, herri desberdinetan ikusgai jarri nahi dute erakusketa. «Beste espazio batzuetara eraman nahi ditugu eskulturak, lan oso interesgarriak iruditzen zaizkigulako, eta horrela, herritar gehiagok ikusi ahal izango dituztelako».

Oraingoan, herrian dagoela aprobe-txatuz, Uzturpe Ikastolako ikasleak erakusketara gerturatzen ari dira bi-

sita gidatuen bidez, eta horretarako, erakusketan parte hartu duten zenbait eskultoreen kolaborazioa edo laguntza izaten ari dira. Asteartean, gainera, artean aditua den Mikel Mendizabal donostiarrak, formazio saio bat eskaini zien irakasleei, arte-hezkuntzaren inguruan.

Alderdi pedagogikoari dagokionez, ikastolan dagoeneko eskultura unitate didaktiko modura lantzen ari dira DBH-ko 1. eta 2. mailan, eskulturaren historia eta euskal eskultoreak nahiz teknika eta material ezberdinak ezagutzeko. «Maila teorikoa lantzen aritu gara orain arte, eta aurrerantzean, eskultoreekin batera, tailerrak egingo ditugu», azaldu du Mendizabalek.

Unitateari amaiera emateko, ekainean, ikasle bakoitzak bere eskultura proposamen txikia aurkezteko aukera izango du ikasturte amaierako lan bezala.

«Erakusketan bere lanak jarri dituzten eskultoreei luzatu genien galdera bera luzatuko diegu: nola adieraziko zenuke *Irribarra* eskultura bidez?», esan du Leonek. Horiek horrela, ikastolan lantzen ari diren kanpo espazioaren eraldaketako abiapuntua ikasleek *Irribarte*a egitasmoaren barruan sortu dituzten eskultura ideiak izatea nahi dute, eta ikasleek hainbat sortzaileraren laguntza izango dute gainera.

*Irribarte*a batzordeko kideek, badituzte aurrera begirako erronka edo asmo gehiago: artista batek edo batzuek material iraunkorrekin egindako lanak herrian bertan jartzea edo, ikastetxeko jolas-tokia eraberritu dutela aprobetxatuz, eskultoreen bati, bertan jartzeko eskultura bat egiteko proposamena luzatzea dira horietako bi. «Azken hau haurrek jolasteko erabili ahalko lukete, eskalatzeko, adibidez», adierazi du Leonek.

Era berean, Kilometroak 22 ekimenak urriaren 2an egingo duen bukaerako ospakizun egunean, eskultura gunea jarriko dute

«Eskultoreei luzatu genien galdera bera luzatuko diegu ikasleei: nola adieraziko zenuke 'Irribarra' eskultura bidez?»

NAGORE LEON



batzordeko kideek, haurrek eskultoreekin batera material desberdinak sentitu eta landu ditzaten. «Sormenerako espazioa izango da. Umeek material desberdinez eskuak zikinduaz, eskulturak ezagutu, ukitu, landu eta osatuko dituzte», azaldu du Leonek.





Euskal artisten elkargune

Euskal Herri osoko hamarnaka artistak Euskal Eskultoreen Elkarte sortu dute. Beren lana ezagutaraztea nahi dute; horretarako, erakusketa kolektiboak egiten ari dira, eta gaur aurkeztuko dute bat, Tolosan.

Gaur egun, ugari dira eskultura lantzen duten artistak, baina arlo horretako hainbat sortzailek uste dute horietako askoren izenak eta obrak ez direla hain ezagunak herritarren artean. «Eskultore berrien lanak ikustea falta da, izen berriak ekartzea, emakumeenak bereziki», esan du Uxue Lasa billabonatarrak, Euskal Eskultoreen Elkarteko lehendakariordeak.

Hutsune hori bete asmoz sortu dute elkarte Euskal Herri osoko dozenaka artistek. Haien lana herritarrei hurbiltzea dute helburu; horretarako, erakusketa kolektiboak aurkezten ari dira. «Ahalik eta erakusketa gehien egitea da helburua».

Azken sei urteotan Aralarren egin izan den Azken Muga jaialdiak zerikusia du elkartearen sorreran. Hainbat sortzaile bildu izan ditu jaialdiak urtero, eskultoreak tartean. «Jendea batzen hasi zen, eta antolatze beharra ikusi genuen». 70 kide inguruk osatzen dute gaur egun elkarte, eta eskultoreak ez ezik, bestelako artistak ere badira. «Elkarte irekia da, eta laguntzaileak ere baditugu, eskulturan ez

dabiltzanak baina beren lana eskaintzen digutenak, erakusketak prestatzeko edo herriz herri mugitze-ko».

Apirilaren 7an Barakaldon (Bizkaian) zabaldu zuten *Bigarrena* erakusketan aurkeztu zuten elkarte sortu berria. Hain zuzen, eraikin hartan Euskal Artearen Erakusketa antolatu zuten duela mende erdi. Urteurrenaren harira zabaldu dute erakusketa, 74 eskultoreen beste horrenbeste obrarekin.

Orain, berriz, *Gaurko euskal eskultura* erakusketa ibiltaria martxan dute. Euskal Herri osoko ehun eskultore baino gehiagoren lanak biltzen ditu. Egun euskal eskulturan lantzen ari diren bideen aniztasunaren lekuko da, askotariko obrak baitaude. «Jendea eskulturara konplexurik gabe hurbiltzea nahi dugu».

Orain arte, Lekunberrin (Nafarroa), Santurtzin (Bizkaia), Beasainen (Gipuzkoa), Angelun (Lapurdi) eta Hazparnen (Lapurdi) egon da ikusgai erakusketa. Gaur, berriz, Tolosako Aranburu Jauregian aurkeztuko dute, 18:30ean. Datozen asteetan, bilduma bisitatzeko aukera izango dute herritarrek.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGURALDIA

OSTIRALA.

Oso antzeko eguraldia. Goizean berriz ere hodeiak ugariak izango dira, baina ateri eutsiko dio. Egurditik aurrera ostarteak zabalduz joango dira, arratsalde partea nahiko eguraldi politarekin joango delarik. Ipar-mendebaldeko haizearekin jarraituko dugu eta tenperaturak koska bat egingo du gora, 18-19 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Eguraldi atsegina. Egun osoan zehar hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira, beti ere ostarteak ugariagoak izango direlarik eta giro argia izango dugularik. Ipar-haizearen eraginpean jarraituko dugu beste egun batez baina, hala ere, temperatura beste koska pare bat igoko da, 20-21 gradutan joaz goia eguneko erdiko orduetan.

IGANDEA

Giro eguzkitsua. Goizean hodei baxu gutxi batzuk agertuko dira zeruan, baina batere trabarik egin gabe eguzkiari. Arratsaldean zerua ia erabat garbi agertuko da eta eguraldi eguzkitsu batez gozatze-ko aukera izango dugu. Ipar, ipar-ekialdeko haizea ibiliko zaigu eta temperatura beste pixka bat igoko da, 21-22 gradutan joaz goia.

ASTELEHENA

Giro ederrak jarraipena izango du. Goizean goi-hodei batzuk eta hodei baxu solteren bat kenduta, giro eguzkitsua izango dugu. Arratsaldean zerua ia erabat garbi geratuko da. Ipar-ekialdeko haizea ibiliko da eta tenperaturak goraka jarraituko du.

ZORION AGURRAK



Urte askuan Manex!

Maiatzaren 7an 38 urte. Zorionak biharko partez!! Eutsi goiai! Wuitxu.



Zorionak Manex!

Besarkada handi bat Amasa-Villabonatik.

FARMAZIAK

MAIATZAK 6, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa.

Edurne Mujika Martinez.

Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

MAIATZAK 7, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.

Korreo kalea, 20.

943 67 60 13.

MAIATZAK 8, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.

Larramendi, 6-1 behe. 943 67 51 18.

MAIATZAK 9, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.

Korreo kalea, 2. 943 /67 01 28.

EGUNERO GAUEKO

GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA. LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



ANOETA LASARBE 5

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU
AZKEN ETXEBIZITZA!

2 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
BAJUA, 30M2-KO TERRAZA
SUKALDEA BARNE

*GARAJE ETA TRASTELEKUA AUKERAN



238.000 €



DATORREN PROMOZIOA

BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!



175.476€-tik hasita

EGOKITZAPEN
ERRAZA

ERABATEKO
EROSOTASUNA

EDOZEIN
DISTANTZIA

IKUSPEGI
EGONKORRA

2 MÓ 229€

BETAURREKO PROGRESIBO



BATZUK EGUZKITAKOAK IZAN DAITEZKE

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multiópticas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen